

PARTAIDETZA BURUTZEKO ARAUAK

1.- Arrazoa

Lege aginduak betetzeaz gain Irurako Udalak, kultura parte-hartzailea bultzatu nahi du eta, horrekin batera, erabaki zehatzak hartzeko ahalmena eman herritarrei, dagokien subiranotasuna itzultze aldera, eta kudeaketa gardenaren printzipioa oinarri izanda.

2.- Helburua

Prozesu zehatz honen bidez, Irurako Udalak 30.000 euroren erabilera erabakitzeko ahalmena ematen die herritarrei. Horretarako, lehenik eta behin, proposamenak aurkezteko aukera emango da, aukera ezberdinak aztertu eta baloratuko dira eta bideragarriak diren proiektuen artean, bozketa bidez erabakiko da.

3.- Xedea

3.1. Bozketan sartuko diren proposamenak inbertsioak burutzeko izango dira (azpiegiturak, obrak, berreraikitzeak, konponketak, etab.). Beraz, bozketatik kanpo geratuko dira zerbitzuak ezartzeko proposamenak edo bestelako gastu arruntak.

3.2. Proposamenak interes orokorrekoak izango dira kasu guztietan, eta herriaren edo herritarrengan modu orokorrean eduki beharko dute eragina, interes partikularrak alboratuta. Interes orokor hori espreski justifikatu beharko da proposamena aurkezterakoan.

3.3. Proposamenek, Udalak inbertsioak egiteko dituen eskumenen barruan egon beharko dute. Hori horrela, kanpo geratuko dira beste erakunde edo administrazioetako eskumenen esparrukoak badira.

4.- Eskubideak

Honako eskubideak edukiko dituzte parte-hartzaileek:

- 1.- Proposamenak aurkezteko beharrezko laguntza eta informazioa eskuratzeko eskubidea.
- 2.- Bozkatu ahal izateko beharrezko laguntza eta informazioa eskuratzeko eskubidea.
- 3.- Egoki ikusten diren proposamenak aurkezteko eskubidea.
- 4.- Erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarrek + erroldatuta ez egon arren, bertan jardueraren bat (merkataritzan, enpresan, elkarteren batean, etab) garatzen duten pertsonak proposamen ezberdinak aurkeztu naiz boto bakar bat emateko eskubidea edukiko dute.
- 5.- Bozketaren emaitza errespetatzeko eskubidea.
- 6.- Bozketaren ondorioz exekutatu beharreko proiektuaren egoera uneoro ezagutzeko eskubidea.

5.- Prozesuraren faseak

Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak fase hauek edukiko ditu:

- 1.- Proposamenak aurkeztea.
- 2.- Proposamenak aztertea.
- 3.- Proposamenak bozkatzea.
- 4.- Proposamenen exekuzioaren jarraipena.

5.1. Proposamenak aurkeztea:

Fase honetan, proposamenak aurkezteko aukera egongo da. Horretarako, Irurako Udalak prestatutako papeleta eredu erabili beharko da. Hala egingo ez balitz, proposamena zuzenean baztertuta geratu ahal izango da. Berdin gertatu ahal izango da aurkeztutako proposamenak ez baditu 3. puntuan (Xedea) jasotako baldintzak betetzen. Proposamenak, udaletxeko harrera bulegoan (9:00etatik – 14:00etara), Irurako udalaren webgunean online formularioa beteta, APPko parte hartze atalean formularioa beteta edo 3rako Ostatuan egongo den postontzian egin ahal izango dira.

5.2. Proposametak aztertzea:

Behin proposamenak aurkezteko epea amaituta, Irurako Udaleko, tekniko eta talde politikoen ordezkariak osatutako mahai batek proiektu bakoitza aztertu eta baloratuko du. Proposamenei oneritzia emateko honako irizpideak erabiliko dira:

- Interes publikoari erantzutea, ez interes pribatuari.
- Udalaren kompetentzia edo ahalmenekoa izatea.
- Teknikoki bideragarria izatea
- Aurreikusitako diru kopuruarekin bateragarria izatea.
- Inbertsio motako proposamena izatea.
- 2024an exekutatu ahal izango dira.
- Proiektuak legediarekin bat etortzea.

Mahai honen oneritzia jasotzen duten proiektuak izango dira bozketa fasera pasatuko direnak, Udaleko sail ezberdinek proposatutako bestelako proiektuak sartzearen kalte egin gabe.

5.3. Proposamenak bozkatzea:

Behin azterketa fasea burututa, bozketa fasera pasatzen diren proiektuen gaineko informazioa emango zaie herritarrei, hauek informazio gehigarria eskuratzeko duten eskubidea kaltetu gabe. Informazioa zabaldu ondoren, bozketa udaletxeko harrera bulegoan (9:00etatik – 14:00etara), Irurako udalaren webgunean online, APPko parte hartze atalean edo 3rako Ostatuan egongo den postontzian burutuko da.

Iruran erroldatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek + erroldatuta ez egon arren, bertan jardueraren bat (merkataritzan, enpresan, elkarteren batean, etab) garatzen duten pertsonak boto bakarra emateko aukera edukiko dute. Boto horren bidez Udalak egoki ikusten duen proiektu kopurua babesteko aukerarekin, eta teknikoki egokien ikusten den eran kontrolatuko dena. Bozkatzaileek, botoa emateko beharrezko laguntza eskatu ahal izango dute. Bozkatzeko, Irurako Udalak prestatutako papeletak erabili beharko dira. Horrela ez bada, botoa balio gabekotzat emango da. Bozketako emaitzak lotesleak izango dira Udalarentzat, eta babes gehien lortu duen proiektua exekutatu beharko da derrigor. Proiektu irabazlea exekutatzeko prozesu honetara bideratutako kopuru osoa ez gastatzea suposatuko balu, boto emaitzen hurrenkera jarraituta eta kopuru erabilgarria alderatuta, proiektu gehiago exekutatu dira, 30.000 euroko kopurua amaitu arte, irabazi ez duten proiektuek emandako boto kopuruaren artean, gutxienez, %10eko babesa lortu badute. Beste proiektuek botoen portzentai hori ez badute eskuratzen, Udalak erabakiko luke gerakina zein inbertsioetara bideratu. Bozketan berdinketa emango balitz, lehentasuna edukiko luke suposatuko duen diru kopuruagatik, beste proiektu batzuk exekutatzeko aukera ematen dutenak, beti ere beste proiektuek % 10eko babesa lortu badute bozketan. Horrela ere berdinketa ezin izango balitz ebatzi, proiektuak aztertzeko mahaiak egokien irizten duena ebatziko du. Udalaren esku egongo da, irabazlea izan dan proiektuaz gain, besteren bat exekutatu nahiko balu, nahiz eta 30.000 euroko kopurua gainditu, aurreko irizpide guztiak beteta. Irabazten ez duten proiektuak, hurrengo urteetako aurrekontuak egiterakoan kontutan hartuak izango dira, botoemaileen %10eko babesa lortu badute.

5.4. Proposamenen exekuzioaren jarraipena:

Bozketa bidez aukeratutako proiektua(k) esleitu ondoren, Udalak exekuzioaren gaineko informazioa emango du uneoro, bai webgunea eta baita egoki irizten diren beste erreminta batzuk erabiliz ere, eta herritarrek edozein momentutan informazioa eskuratzeko eskubidea edukiko dute, herritarren partaidetza sustatu asmoz eta benetan bermatuta geratu dadin.

PROZEDURAREN KRONOGRAMA:

- 1.- Proposamenak aurkeztea: maiatzaren 6tik 20era.
- 2.- Proposamenen azterketa: maiatzaren 21etik ekainaren 4ra.
- 3.- Proposamenen bozketa: ekainaren 11tik 16ra.

Kontaktuak:

Irurako udala telf.: 943691333

E-posta: gazteria@irura.eus/alkatetza@irura.eus

Iruran, 2024ko apirilaren 30ean.